

## 2024-25 IKASTURTEA - MATRIKULAZIO EPEAK

### IKASLEEN ONARPENA ETA MATRIKULAZIOA

#### 2024-25 IKASTURTEA

##### **2024-25 Ikasturteko Matrikulak**

Plazak dauden bitartean matrikulazioa zabalik egongo da Musika eta Dantza Eskolan. Kuoten ordainketa alta ematen den hilabetetik aurrera egingo da.

##### **2024-25 Ikasturteko Bajak**

Irailaren 25etik aurrera ez da instrumentuko bajarik onartuko eta hiru-hilabeteko kuota osoa ordaindu beharko da.

##### Hilabeteko kuoten kasuan:

- Baja gauzatu ahal izateko baja papera bete beharko da.
- Hurrengo hilabetean jarriko da indarrean baja.

##### Hiru-hilabeteko kuoten kasuan:

- Bajak abenduaren 1etik 15era eta martxoaren 1etik 15era eman ahal izango dira.
- Baja gauzatu ahal izateko, baja papera bete beharko da.
- Horrela, hurrengo hiru-hilabete hasieran jarriko da baja indarrean.

#### 2025-26 IKASTURTEA

##### **2025-26 Ikasturteko Matrikulak**

##### Bertako ikasleak:

- Matrikulazio epea **maiatzaren 1etik 9ra** izango da.
- Matrikulazio automatikoa izango dute.
- Musika Tailerreko 3. mailakoek lehentasuna izango dute instrumentua aukeratzeko orduan.
- Ikasgaiak gehitu, kendu ala aldatu nahi izanez gero, Musika Eskolako idazkaritzan, telefonoz edo e-mail bidez egin beharko dute, matrikula eguneratzeko.

**Ikasle berriak:**

- Matrikulazio epea **maiatzaren 12tik 23ra** izango da.
- Izen emate eta matrikulazioa eskolan bertan, telefonoz edo e-mail bidez egin beharko dute.

Matrikula orria betetzea derrigorrezkoa izango da.

**Idazkaritzako ordutegia:**

- Astelehenak eta ostiralak, 11:00etatik 13:00etara.
- Astearte, asteazken eta ostegunak, 16:30etik 18:30era.

Plazak mugatuak izango dira.

(\* ) Matrikula orria egin arte ezingo da inolaz ere klaseak jasotzen hasi.